

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2020/21

**Ikastegia**

231 - Psikologia Fakultatea

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GPSICO20 - Psikologiako Gradua

**Ikastaroa**

1. maila

**IRAKASGAIA**

25073 - Eboluzioa eta Jokabidea

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai honek, bere aurrekariak ditu aurrez gure Fakultatean izandako Ikasketa&#8209;Planeko zenbait irakasgaietan. Zehazki, Etologia eta Giza Etologia irakasgaietan eta Psikobiologiako Oinarriak I irakasgaiaren Genetikaren gaineko blokean. Gaur egun, Jokaera&#8209;Neurozientziaren Oinarriak irakasgaiarekin batera, Eboluzioa eta Jokabideak ikasleak Psikobiologiarekin duen lehen harremana da, jokaeraren oinarri biologikoen ikasketarekin alegia. Eboluzioa eta Jokabidea irakasgaiak gure espeziean adierazgarrienak diren jokabideak (batez ere sozialak) perspektiba eboluzionistan kokatzen ditu, horretarako honen inguruan gaur egun indarrean dauden paradigma nagusiak jarraituz. Gainera, jokabide hauen azpian dauden prozesu kognitibo eta emozionalak jorraten ditu, zeintzuk beste perspektiba batetik, Psikologiaren ikerketa objektu diren baita ere.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

1. Gizakiaren ikasketa ikuspegi ebolutibo batetik egin ahal izateko Eboluzio Teoriaren funtsezko oinarriak ezagutzea.
2. Jokaeraren azterketan, herentzia biologikoaren eragina kontutan hartu ahal izateko, genetikaren funtsezko oinarriak, kasu eta ariketen ebazpenaz lagundurik, ezagutzea.
3. Testuen irakurketak, euren sintetizatze lanak, bai eta hauen azalpen eta eztabaidak lagunduta, jokaeraren ikasketa eboluzionistaren urbilketa nagusienak eta hauetatik eratortzen diren ereduak bereizi ahal izatea.
4. Giza jokaera, beste talde taxonomikoen jokaerarekiko alderatzearen argitan aztertu ahal izatea.
5. Giza jokaeraen alderdi nagusienak aztertzea, analisi lanabes modura Eboluzioaren Teoria erabiliaz, informazioaren bilaketa eta kudeaketa bitarteko.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

1. Jokaeraren azterketa eboluzionistari sarrera.
2. Eboluzioaren Mekanismuak eta Jokaeraren Eboluzioa
3. Hominizazioaren prozesu biologikoak.
4. Antolakuntza soziala eta prosozialitatearen eboluzioa
5. Talde bizitzarako egokitzapenak
6. Komunikazioa.
7. Ugalketa, bikoteratze estrategia eta bizitza historia
8. Jokaera agonistikoa
9. Nahasketa psikologikoen azterketa eboluzionista

**METODOLOGIA**

Ikasgaiaren eduki teorikoen ebaluazioa aukera anitzeko proba baten bitartez egingo da, test moduko azterketa bat alegia, bertan gai bakoitzak, bere garrantzi eta ordu--kargaren arabera pixu ponderatu bat izango du. Proba honetan ikasleei eboluzioaren teoriari buruz, jokabidearen oinarri genetikoei buruz, giza jokabidearen analisi eboluzionistaren paradigma nagusiei buruz eta teoria hauek erabiliz analizatu daitezkeen jokabideei buruz (altruismoa, agresioa, bikote hautaketa....) galdetuko zaie. Zati honetan lortu daitezkeen puntuazio maximoa 70 izango da, zeini zati praktikoari dagozkion 30 puntu batu ahal izango zaizkion. (B zatia, ikus gida honen 4.2 puntua). Bi zatitan lortutako puntuazioa batu ahal izateko (A+B) gutxienez puntu posibleen %40a lortu beharko da zati bakoitzean. Era osagarrian, ikasleak irakasgaiaren eduki teorikoen gaineko azterketa partzialera aurkeztu ahal izango dira. Azterketa hau aukera anitzeko proba objektiboa izango da, ordurarte eskoletan landutako eduki teorikoei buruzko test moduko azterketa. Gai bakoitzak bere garrantzi eta ordu--&#8209;&#8209;kargaren arabera pixu ponderatu bat izango du. Lortu daitezkeen puntuazio maximoaren %70a edo gehiago eskuratzen duten ikasleek azterketa finalean eduki hauei buruz aztertzeaz libratuko dira. Azterketa partzialeko edukietaz libratu den ikaslea azterketa finalera aurkeztu ahal izango da azterketa partzalean libratu ez duen edukiei buruzko galderei erantzunez hala nola azterketa osoari erantzunez. Edonola, azterketa finalean lortzen den puntuazioa, edota egindako zatietan lortutakoa, aurrez lortutakoari nagusituko zaio. Zati praktikoaren ebaluazioa. Praktikekin lortu ahal izango de puntuazio maximoa 30 puntutakoa izango da, eta nota teorikoari gehituko zaio baldin eta gutxienez 12 puntu lortzen badira bertan. Ebaluaketa bi eratara egin ahal izango da (aukeran): era jarraian edo eta azken azterketan. Ebaluaketa jarraian, bi txosten burutu beharko dira, bat bakarka burutu beharrekoa eta bestea taldeka. Banakako txostenarekin 16 puntu lortu ahal izango dira gehienez eta taldeko txostenarekin 6. 30 puntuetara iristeko falta diren beste 8 puntuak azterketa finalean praktiketan landutako informazioari buruzko galderei erantzunez lortu hala izango dira.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	40	2	4		4		10		
<b>Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.</b>	60	3	6		6		15		

**Legenda:** M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 15
- Test motatako proba % 55
- Banakako lanak % 16
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 6
- Praktiketako irakurgeta buruzko galderak azken azterketan % 8

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaiaren ebaluazioa, Ebaluazio Mistoaren ala Azterketa Finalaren bitartez egin daiteke.

• Ebaluazio Misto. Bi idazlan egingo dira, bat banakakoa eta beste bat beste bi ikasleren lankidetzarekin. Idazlan hauen gaia, matrikulatu ondoren e-Gelan bitartez lor daiteken irakasgaiaren gida zabalduan zehaztuko dira. Bi lan hauekin kalifikazio osoaren %22 lortu ahal izango da. Praktikentzako erabilitako testuei buruzko galdesorta batekin kalifikazio osoaren %8 lortzeko aukera egongo da. Azken azterketa teorikoak kalifikazio osoaren %70eko balioa izango du eta bi zati izango ditu, bat test modukoa %55eko baliokoa eta, bestea galdera ireki bat % 15eko baliokoa.

Lehen proba partziala: Aukera anitzeko galderak (Teoria: 7/10) eta irakasgaiaren praktikekin erlazionaturiko galderak (Praktikoak: 2,5/10). Gainera, taldean egindako lanen elaborazioa eta aurkezpena ebaluatuko da (0,5/10). Hau kurtsoan zehar ez bada egin, azterketaren atal praktikoan egiteko aukera dago. Partzialeko edukiak liberatu ahal izateko beharrezkoa izango da guztira 6/10 gutxienezko puntuazioa ateratzea eta gutxienez 1,5 puntu praktikei buruzko atalean.

• Azterketa Finala. Ikasle guztiek azterketa finalera (teoriko-praktikoa) aurkezteko eta kalifikazioaren %100 lortzeko eskubidea izango dute. Azken azterketa hoentan, eduki teorikoetaz gain, praktiketarako erabili diren testu guztiei buruz ere galdetuko da.

### IKASGAIA BIRTUALKI IRAKATSI ETA EBALUATZEKO PLANA

Covid-19ak eragindako pandemiaren salbuespenezko egoera bati berriro aurre egin behar izanez gero, irakaskuntza gidan eta web orrialde ofizialean agertzen diren gidaren irizpideak alda daitezke. Irakasle taldeak hurrengo irizpidea erabiliko luke: "Eboluzioa eta Jokabidea irakasgaiaren ebaluazio planak aurrez-aurreko ebaluazioaren isla izaten saiatuko da, eGela irakaskuntza plataforma birtualean eskuragarri dauden jardueren eta bestelako baliabide telematikoen bidez".

Ohar argigarriak:

- Ohiko deialdian azterketa partzalean lorturiko nota osoa gordetzen da (teoria-praktika) kurtso bereko ez-ohiko deialdirako, baina hurrengo kurtsoetarako ez da nota gordetzen.
- Bi azterketa partzialen batez besteko haztatua egin ahal izateko azterketa bakoitzean gutxienez 3 puntu hamarren gaineko nota ateratzea beharrezkoa da.
- Azterketa partzalean izandako nota igo daiteke nota horri uko eginez eta azterketa finalera aurkeztuz.
- Irakasgai honetan aski da azterketara ez agertzea deialdiari uko egiteko.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

- Ohiko deialdian azterketa partzalean lorturiko nota osoa gordetzen da (teoria-praktika) kurtso bereko ez-ohiko deialdirako, baina hurrengo kurtsoetarako ez da nota gordetzen.
- Bi azterketa partzialen batez besteko haztatua egin ahal izateko azterketa bakoitzean gutxienez 3 puntu hamarren gaineko nota ateratzea beharrezkoa da.
- Azterketa partzalean izandako nota igo daiteke nota horri uko eginez eta azterketa finalera aurkeztuz.
- Irakasgai honetan aski da azterketara ez agertzea deialdiari uko egiteko.

### IKASGAIA BIRTUALKI IRAKATSI ETA EBALUATZEKO PLANA

Covid-19ak eragindako pandemiaren salbuespenezko egoera bati berriro aurre egin behar izanez gero, irakaskuntza gidan eta web orrialde ofizialean agertzen diren gidaren irizpideak alda daitezke. Irakasle taldeak hurrengo irizpidea erabiliko luke: "Eboluzioa eta Jokabidea irakasgaiaren ebaluazio planak aurrez-aurreko ebaluazioaren isla izaten saiatuko da, eGela irakaskuntza plataforma birtualean eskuragarri dauden jardueren eta bestelako baliabide telematikoen bidez".

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Azken ebaluazio bakarra, ebaluazio sistema bezala aukeratzen dutenentzako, Eboluzioa eta Jokabideari buruzko liburu-atal bilduma beharrezkoa izango da. Hau nola lortu e-Gelan aurkitu ahal izango den ikasgaiaren gida zabalduan adieraziko da. Ebaluaketa mistoa aukeratzen duten ikasleentzako bilduma hau osagarria izango da.

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

(Sig. = Referencia en Biblioteca)

- Barret, L., Dunbar, R. y Lycett, J. (2002). Human evolutionary psychology. New York: Palgrave. Sig. 159.922 HUM
- Boyd, R. y Silk, J.B. (2001). Cómo evolucionaron los humanos. Barcelona: Ariel. Sig. 572.17.4
- Buss, D.M. (1999). Evolutionary psychology: The new science of the mind. Boston: Allyn and Bacon. Sig. 159.922
- Carranza, J. (Arg.) (2016) Etología adaptativa. Cordoba: UCOPress. Sig. 591.5ETO
- Colmenares, F. (ed.) (1996). Etología, Psicología Comparada y Comportamiento Animal. Madrid: Síntesis. Sig. 591.5 ETO
- Crawford, C. y Krebs, D.L. (eds.)(1998). Handbook of evolutionary psychology. Ideas, Issues and applications. Mahwah, New Jersey: Lawrence Erlbaum. Sig. 159.922 HAN
- Eibl-Eibesfeldt, I. (1993). Biología del comportamiento humano. Manual de Etología Humana. Madrid: Alianza. Sig. 159.91 EIB
- Lannoy, J.D. y Feyereisen, P. (1989). La Etología Humana. México: Siglo XXI. Sig. 591.55 LAN
- Maier, R. (2001). Comportamiento animal. Un enfoque evolutivo y ecológico. Madrid: McGraw-Hill.. Sig. 591.5 COM
- Peláez, F. y Veá, J. (eds.)(1997). Etología. Bases biológicas de la conducta animal y humana. Madrid: Pirámide. Sig. 591.5
- Pinker, S. (2003). La tabla rasa. La negación moderna de la naturaleza humana. Barcelona: Piados. Sig. 159.922.3 TAB
- Relethford, J.B. (2011). Giza espeziea. Bilbo: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua.
- Slater, P.J.B. (2000). El comportamiento animal. Madrid: Cambridge University Press

### Gehiago sakontzeko bibliografia

- Alcock, J. (2001). Animal behavior. Sunderland, MA: Sinauer Associates. Sig. 591.5 ANI
- Axelrod, R. (1986). La evolución de la cooperación. Madrid, Alianza. Sig. 316.47
- Buss, D.M. (1996). La evolución del deseo. Estrategias del emparejamiento humano. Madrid, Alianza. Sig. 392.6
- Dunbar, R.I.M. y Barret, L. (ed.) (2007). The Oxford handbook of evolutionary psychology. Oxford: Oxford University Press. Sig. 159.922 OXF
- Eibl-Eibesfeldt, I. (1980). El hombre preprogramado. Madrid, Alianza. Sig. 572
- Fisher, E.H. (1994). Anatomía del amor. Historia natural del adulterio, la monogamia y el divorcio. Barcelona, Anagrama. Sig. 392.6 FIS
- García Leal, A. (2005). La conjura de los machos. Una visión evolucionista de la sexualidad humana. Barcelona: Tusquets. Sig. 613.88 CON
- Goodenough, J., McGuire, B. y Wallace, R. (2001). Perspectives on animal behavior. New York: WW. Norton and Company. Sig. 591.5 PER
- Guillén-Salazar, F. (ed.)(2005). Existo, luego pienso. Los primates y la evolución de la inteligencia. Madrid: Ateles. Sig. 591.51 EXI
- Montagner, H. (1988). L'enfant et la communication. Paris, Stock/Laurence Pernod. Sig. 159.922.7
- Ridley, M. (2004). Qué nos hace humanos. Madrid, Taurus. Sig. 159.922.3 QUE
- Sanjuán, J. y Cela Conde, C.J. (eds.) (2005). La profecía de Darwin: Del origen de la mente a la Psicopatología. Barcelona. Ars Medica. Sig. 159.922 PRO
- Simpson, J.A. y Kenrick, D.T. (eds.)(1997). Evolutionary social psychology. Mahwah, NJ, Lawrence Erlbaum. Sig. 316.1 EVO
- Smuts, B. y cols. (eds.) (1986). Primate societies. Chicago, University of Chicago Press. Sig. 599.8 PRI
- Soler, M. (ed.). La evolución. La base de la biología. Granada. Proyecto Sur de Ediciones. Sig. 575.8 EVO
- Tobeña, A. (2001). Anatomía de la agresividad humana. De la violencia infantil al belicismo. Barcelona, Galaxia Gutenberg. Sig. 159.943 ANA
- Wilson, E.O. (1980). Sobre la naturaleza humana. México, Fondo de Cultura Económica. Sig. 572

### Aldizkariak

- Human Behavior and Evolution
- Evolutionary Psychology
- Brain and Behavioral Sciences
- Animal Behavior

### Interneteko helbide interesgarriak

Hurrengo webguneetan, gaiaren inguruko ikerketa taldeei buruzko informaziora eta irakaskuntza baliabideetara eramaten duten estekak aurkitu daitezke:

- International Society for Human Ethology: <http://evolution.anthro.univie.ac.at/ishe/>

- Sociedad Española de Primatología: <http://www.uam.es/otros/ape/>
- Sociedad Española de Etología: <http://webs.uvigo.es/c04/webc04/etologia/index.html>

**OHARRAK**